

I. “*Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea*” Kazetaritza Sariak **36.000 euro** banatuko ditu 2010eko sei kategoriako lanik onenen artean

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEAK INFORMAZIOAREN PROFESIONALIK ONENAK SARITUKO DITU

Saria ACEVINen (FITUR, 7C03) standean aurkeztuko da, urtarrilaren 20ko 14:00etan

Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbideak, Ibilbidearen komunikazio-agentzia den RV Edipress Taldearen laguntza teknikoarekin, **36.000 euro banatuko dituen I. “Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea” Kazetaritza Saria aurkeztu du.** Proiektu handizale honen helburua kontsolidatu eta, 2010. urtean zehar jomuga turistiko honen erakargarritasunak eta aukerak ondoen islatzen dituzten informazioaren profesionalak eta hedabideak saritzea da.

Sariak, hedabideek eta horietako profesionalek **Ibilbidearen** alde egindako lana eta hari emandako laguntza aitortzen du, eta **2010eko urtarrilaren 10etik abuztuaren 30era bitartean** (data biak barne) **egindako** kazetaritza-lanik hoberenak sarituko ditu aurrenekoz. Sariak sei kategoriatan banatuta egongo dira: **inprimatutako euskarria, irratia, on line, telebista grafikoa eta informazio-jarraipen orokorrik onena.** Aldi berean, kategoria bakoitzean 3.000 euroko lehenengo saria, 2.000 euroko bigarrena eta 1.000 euroko hirugarrena izango dira, bai eta hiruna plaka oroigarri ere kategoria bakoitzean.

Sariak 2010eko laugarren hiruhilekoan zehar ospatuko den galan banatuko dira, eta horretara, saridunak ez ezik, epaimahaikideak bertaratuko dira, hau da: **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbideko** presidentea eta gerentea, *Juan Manuel Lavín jn.* eta *Amaia López de Heredia and.*, hurrenez hurren, RV Edipress Taldeko zuzendari nagusia den *Fernando Valmaseda jn.* eta, lanak zorrotz aztertu ondoren epaiak emango dituzten kazetari, argazkilari, literato eta erakundeetako eta entitate babesleetako arduradunen talde bat.

I. Sari hau **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidearen** aurkezpenaren ardatz nagusi izango da FITUR 2010 azokan (Madrilgo Juan Carlos I.aren Azoka Esparrua, urtarrilaren 20tik 24ra). Ibilbidea, Euskadiren standean (9. Pabiloiko 9C06 Standa) zein ACEVIN - Ardoaren Hirien Espainiako Elkartearenean (7 Pabiloiko 7C05 Standa) aurkeztuko da, eta azken elkarte horretako kide izanik, horren standean aurkeztuko da Saria urtarrilaren 20an, asteazkena, eguerdiko 14:00etan.

15 udalerrri (*Mainueta, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreta, Navaridas, Oion, Samaniego, Eskuernaga eta Ekora*), 4 Administrazio Batzar (*Gorrebusto, Labraza, Paganos eta Gatzaga Buradon*) eta turismo eta enologiaren sektoreko enpresak ordezkaturiko ditu, honela, **Ibilbideak**; orotara 100 bazkide baino gehiago ordezkaturiko ditu, guztiak ere tradizionalki ardoaren kulturari lotuak eta mahastien artean altxatu diren eta ondare natural, arkeologiko eta artistiko handia gordetzen dutenak.

Informazioa: 902 11 40 50

www.rutadelvinoderiojaalavesa.com